

euskaldunon konpartsaren aldizkaria

Badator Marijaia eta Hau Pittu Hau ongi etorria emateko lanean ibili da eta badabil jo ta ke. Horrez gain jaietarako ere izan dugu denbora eta ez diogu hutsik egin: Jaikiari, Konpartsero Egunari, auzotegiko jaiei. Gure konpartsa beti jai herrikoien alde.

HAU
PITTU
HAU

EUSKALDUNON KONPARTSA



MAIATZAK 7: LANA ETA JAIA

Gure konpartsan ohitura denez, aurten ere, Aste Nagusia prestatzeko irteera antolatu genuen. Plentziako aterpea beteta zegoenez, Urduñan bukatu ginen.

Kasualitatea besterik ez zen izan! Maiatzaren 7an, Urduñako aterpean lan egiteko geratu ginen. "OTXOMAIOS"en bezperan. Hori arriskua!!!



Batzarra, eguzkitan, egin genuen landa batetan

Goizeko 11etan Abandoko geltokian elkartu ginen, eta Pitturen auto berria "bete" eta gero, Urduñara abiatu ginen, batzuk autoz, beste batzuk trenez.

Urduñara ailegatzean, autoz joan zirenek ez zuten arazorik eduki aterpea topatzeko; baina trenez joan ginenok bost kilometro aldapa gora egin behar izan genuen eguzki gogorraren azpian. Dena den, albokaz eta umore onean, bideari ekin genion.

Aterpea, bere garaian militarren egoitza izan zana, oso ondo zegoen. Batez ere azpiegitura aldetik; langileek osteria, erdaldun hutsak izateaz gain, benetako

"militronxoak" ematen zuten, hau da, beren aginduekin gora eta behera, eta guztia kontrolatu nahian.

Bazkalordua gertu zegoenez eta herrira jaisteko astirik ez geneukanez, eguzkitan, igel jolasean, eta alboka jotzen paratu ginen.

Bazkaldu ondoren, herrira jaitsi ginen kafea hartzera, eta behin kafea hartuta, aterpera lan egiteko prest bueltatu ginen.

Eguraldia ezin hobea zen eta batzarra, eguzkitan, egin genuen landa batean. Oso ondo joan zen guztia, eta betiko gaiak ukitu genituen: txosna, sukaldeia, dekorazioa, kamisetak... Nahiz eta

garrantzitsuena, nire ustez, behintzat, dekorazioa izan zen. Azkenean honako lelo hau aukeratu genuen: "KOKOTERAINO NAGO! EUSKARAZ ETA KITTO!".

Batzarra bukatu eta gero, berriro zaletasunei ekin genien afalordura arte. Afaria primeran! Aupa sukaldaria!!! Zapore gabeko sopa eta tortilla hartuta (plastikozkoak ematen zuten!), jaietara joateko prestatu ginen.

Herrira joan baino lehen, landa batean geratu ginen zeozer edaten, lasai-lasai, barre egiten eta betiko istorioak kontatzen (zaharren moduan!). Gaueko 12etan edo, herrira jaitsi ginen... borroka-eremura. Bertan, hainbat konpartsakiderekin egon ginen: Patri, Iñaki, ... Iñaki jaka magikoaren bila egon zen, baina ez zuen ezer aurkitu!

Aterperako itzulera guztiz anarkikoa izan zen. Hori bai, gehienok kotxez igo ginen. Baten bat, fitxak sartzen geratu zen herrian, baina azkenean beroaldiarekin %18ko malda ikaragarri horiek bakarrik igo behar izan zituen. Ordu bat inguru lo egin eta gero, danak gora, 10etarako gelak hutsik geratu behar zirelako! Batzuen zurrunkak mundialak izan ziren!

Lan-eguna Amurrioko Batzokian bukatu genuen, gosari eder batekin! Gora gu!





INDAUTXURA EUSKARA ERAMATEKO TXOTXINDAU

Konpartsarako kaptazio kanpaina egiteko asmoz joan zen HPH

Pasaden urtean legez eta Bilboko auzo ardaluna den Indautxura euskara eramateko asmoarekin eta bide batez kaptazio kanpaina egiteko asmoz Txotxindau ospatu zuen ekainaren 3an, barikua.

Hara hurbildu ginen konpartsakide batzuk, lehenengo taldea goiz joan zuen odolosteak, txorizoa, tortilla eta abar prestatzeko eta bigarren taldea gero etorri zuen sagardo ta jaki onez gozatzeko prest.

Eta badakizue zer gertatzen dan hau pittu hauko konpartsakide bat ta sagardoa elkartzen direnean ezta? (beno sagardoa eta beste edozein

edari zeren konpartsero egunean 48 garagardo desagertu ziran konpartsakide batzuen gibelerako bidean di-da batean).

Bada horixe bera gertatu zuen, mozkortu ginela.

Gero euskal kirolak egon ziren euskaltegiko ikasle, irakasle eta konpartsakideekin nahasketa bat egin eta taldeak sortu, gonbidatu berezi batez gainera, Ikusgela programako aurkezlea hain zuzen ere.

Zer esanik ez giro euskalduna nabarmendu zela eta lehenengo urratseko ikasle batzuk ere animatu ziren

euskaraz edo mintzatzen.

Herri kirolak eta kirolak orokorrean gure espezialitatea ez direnez berehala ikusi zuen nor zan konpartsakide eta nor ez, kupelatik pertsonara zegoen distantzia neurtuz.

Gero Indautxuko herrikora abiatu ginen, jaiarekin jarraitzeko.

Herriko beste kupela bat genuen eta laster hustu egin genuen han mutil baten urtebetetzeko tartatik gertatu zena jan eta gero.

Eta Mayrak esaten zuen legez horraino irakur dezaket, zeren nik hortik aurrera oso gutxi gogoratzen dot.



Berehala ikusi zuen nor zan konpartsakide, kupelatik pertsonara zegoen distantzia neurtuz.





AURTEN IRUÑARA JO JAIKI 05 OSPATZEK



Iruñako kaleetatik Bilbotik eraman genituen buruhaundiak jai giroa sortu

Aurten Iruñean ospatu da Jai eta Kultura Herrikoien aldeko jaiak. Iruñako Peñek hartu zuten Bilboko Konpartsek emandako lekukoa eta JAIKI 05 Nafarroako hiriburura abiatu zen. Baina Nafarroan ospatutako jaiak ez zeukan Bilbon ospatutakoarekin zer ikusirik.

Bilboko Konpartsetako kideok jakin bagenekien aurten

JAIKI iaz baino samurragoa izango zela, baina ez genuen espero topatu genuena. Bilbotik joan ginen lagunok Iruñakoak baino askoz gehiago ginen, nahiz eta gure aldetik jende asko ez joan. Kalejirak manifa ematen zuen: giro gutxi (guk eraman genituen buruhaundiak kenduta), jaiarekin zer ikusirik ez zeukaten leloz beteta eta bai aurretik bai atzetik poliziak

eskolta eman zigun.

Holan Udaletxearen plazara heldu ginen eta han ere jaietako giro gutxi. Bozeralamaileak iruñakoek udalarekin dauzkaten arazoei buruz hitz egin zuen luze; baina makala izan zen esan zuena jaiak eta Jai Herrikoien kontrako erasoei buruz.

Ekitaldia bukatu zenean Bilboko konpartsakideok galduta ibili ginen galdezka:



AN GARA ASMOZ

«eta orain zer egingo dugu?» non bazkalduko dugu eta zer ordutan?». Dena dela, arazorik ez, konpartsakide bat ez dago galduta taberna bat hurbil badago eta hara abiatu ginen. Fanfarria bategaz askoz politagoa izan litzatekeen Euskal Herriko hiriburutik baxoerditan ibiltzea, denok batera, jai giroa sortuz; baina hori ez zegoen egitarauan.

Bazkaltzeko orduan kristoren beroa, eta apostuak ezetz Gogorregikoak etorri gurekin bazkaltzen. Apustueta parekotasuna egon zen. Apustuslarien erdiak baietz etorri euro bat jokatu zuen, beste erdiak ezetz. Baina, bai, agertu ziren eta susmaberakoek ordaindu behar zuten.

Zoritxarrekoek eguzkipean bazkaldu zuten eta gerizpean besteok, ordea; entsalada, hestebeteak, oilaskoa eta natillak bazkaldu genuen denok.

Bazkaldu ostean, kaferik ez zegoenez patxaranari ekin genion bertsolariak eta bakarrizketalariak entzuten genituen bitartean.

Peñek antolatu zuten kontzertua bertan behera geratu zen, Berroetaren aldeko manifa dela medio. Batzuk hara abiatu ziren, beste batzuk, ordea, azken potea hartzera joan ziren.

Bilbora itzultzeko autobusa zortziretan hartu genuen Iralako jaiak joateko.

BILBOKO KONPARTSAK BETI JAI ETA KULTURA HERRIKOIEN ALDE

O n d a r r u n Koordinakundeak batzar berri bat sortzea erabaki zuen, hau da, Manifestu Batzordea.

Batzorde honen helburua jaiak aztertzea eta jai herrikoia hobetzeko eman behar diren urratsak aurkeztea izan da. Urtean zehar lanean ibili ostean, Manifestu Batzordeak honelako proposamena aurkeztu zuen, Manifestuarean aldeko kanpaina bi mailetan planteatzea, Euskal Herriko mailan, alde batetik eta Bilbo mailan bestetik.

E u s k a l Herriko mailan kanpaina labur bat egin da eta ekainaren 18an Iruñean Jaiki 05 ospatu da.

B i l b o k o mailan, bi arlo

ezberdinetan banatu zuen kanpaina: alde batetik ekintzak eta bestetik komunikazioa.

Kanpainaren asmoa gure hiriko jaietan (bai auzoetan, bai Aste Nagusian) Manifestua agerian egotea zen. Horretarako Bilboko auzoko jai batzorde bakoitzak Manifestuaren aldeko ekitaldi bat burutu du eta konpartsek konpromiso hartu zuten ekitaldi guzti horietan parte


hartzeko txandaka.

Konpartsa bakoitzak bat aukeratu behar zuen hurrengo ekitaldietan: Errekaldeko jaisiera, Santutxuko Marmitako Lehiaketa, San Inazioko Paella Lehiaketa eta Zorrotzako gastronomiko lehiaketa.

HPH Santutxun

Santutxuko jaietan,


Marmitako lehiaketan, parte-hartzea erabaki zuen Hau Pittu Hau. G u r e konpartsakideak goizeko hamar eta erdietan Basarrateko enparantzan geratu ziren A r z a k sukaldariaren urratsak jarraitzeko.



Pako, Peru, Pittu eta Txomin zintzo zintzo joan ziren etxera aurreko egunean, Santutxuko jaiak baziren ere, gure konpartsa-ren izena goian uzteko lehiaketan. Saririk ez zuten lortu, baina marmitako motela izan arren, dirudienez Peruren errua izan zen, azkenak ez ginen izan bota zuten garagardori eta gure konpartsakideen trebetasunari esker.



Oskar eta Fuen marmitako ederra prestatuz



Hau Pittu Hau berbenaren lehenengo lerroan

LASTE ARTEKO

Lehenengo konpartsero eguna bizi izan zutenek kontatzen zuten oso jai xumea izan zela. Oraindik ez du galdu lagun arteko kutsu hori. Arenalean ehundaka konpartsakide bildu baginen ere lagun arteko jai bat ematen zuen, koadrilakoa alegia, eta agian horregatik konpartsero eguna sustraitzen ari da konpartsen artean, urtez urte giro ezin hobea goa lortuz.

Aurten kontu bitxi bat egon da, konpartsero eguna ospatu zen egun berean Bilboko Udalak eta Foru Aldundiak Bilbao Urban Circuit-ean World Series by Renault burutzen ziren (antza denez gure agintari txit jeltzaleek paso



MARKETA KONTXEEN KONPARTSERO EGUNA

egiten dute euskaraz beraiena ingelesa da, Bilbao Exhibition Center adibide). Konparaketa ederra egin genezake bi ekitaldien artean Konpartsero eguna eta auto lasterketa.

Batzuen ustez gu kutreak, mozkortiak, zikinak eta zaratatsuak omen gara, baina gutxienez ez gara hipokritak. Kotxe lasterketen, abiadura eta Renault en promozio ederra egin ostean Kotxerik gabeko eguna antolatuko dute. Bilbo osoa zarataz bete ostean Aste Nagusiko aurreko

egunean dezibelioak mugatu diote Aste Nagusiari eta auzoko jaietara. Hainbat etxebizitzaren sarbidea itxi ostean Arenalean segurtasun neurriak zorrotzenak ezarriko dituzte. Hotelen onerako antolatzen dute honelako ekitaldia diru publikoarekin baina ez dute gustoko erakunde herrikoiek txosnarik ipintzea. Hipokrisiari STOP.

Konpartsero egunera itzuliz eta kotxe lasterketek sortu zuten zurrunbiloa apur bat ahaztuz, egun ederra izan

genuen bai. Goizeko 10etan hasi ginen beharrean, Kanpi eta Txomin pintxo goxoak prestatzen eta Oskar, Teresa eta Fuen entsalada eta marmitako ederra prestatuz. Bitartean Astrabu edarien horniduraz arduratu zen. Zorionak denei aurreko bazkalduraz arduratu zen. Soilik aipamen bat autokritikarako, Bilboko konpartsek ipinitako garagardo upela bukatu ostean nolatan edan daitezke 68 garagardo bazkaldu baino lehen?. Gurea ez da oso



Kanpi pintxoari buruz eritzia eskatuz konpartsakide bat

Arenalean
ehundaka
konpartsakide
bildu baginen
ere lagun
arteko jai bat
ematen zuen

normala.

Horren ostean Amaiurren berbera izan genuen. Hirurogeita zortzi garagardo, patxarana, ardoa, sagardo eta abar edan ostean Hau Pittu Hau berbenaren lehengo lerroan (eta eszenatokian) kokatu zen. Batzuk bazkariko tresnak gordetzen zituzten bitartean kalejira hasi zen alde zaharretik fanfarria baten



Teresak eta Peruk Amaiur berbenarekin izugarri gozatu zuten

laguntzaz. Hortik aurrera oroimenak nahasten dira. Tasioren aita eta bere laguna alde batetik, Kanpi suediar batzuekin bestetik (non ote dago marrazkilo bihotza?, zelako paparazzi txarrak). Amaiera Santutxun izan zen non eguneko bigarren berbena izan genuen. Hortik aurrera bakoitzak jakingo du zer izan zen bere buruaz. Aste nagusirako beroketa ederra.

**Nolatan edan
daitezke 68
garagardo
bazkaldu baino**

Sardinada dohainik

Konpartsakideek bazkaria eta lehiaketarako pintxoak prestatzen zituen bitartean,

Bilboko Konpartsak Federakundeak sardinak, garagardo eta ardoa banatu zituen dohainik bilbotarren artean. Konpartsek Santurtzitik 60 kilo sardina ekarri zituen eta Areatzan bertan erre zituzten. Areatzara hurbiltzea erabaki zutenak banaketa hasi baino lehen arrarparrillaren aurrean bildu ziren eta Azkunak antolatutako zirkuitoa ez bezala, ekitaldi hori guztiontzat zela esaten zuten.



ONGI ETORRI HAU PITTU HAU-ra.

Konpartsero egunean, Euskaldunon Konpartsaren kide berria den Iban Ocio agertu zen Areatzan Hau Pittu Hau-ko kideak ezagutzeko asmoz. Aspaldian konpartsan sartzea pentsatuta ba zuen ere, Ibanek ihauterietan eman zuen azken urratsa. Irudian, Txominek agurtzen Euskaldunon Konpartsaren kide berriari.





MARIJAIAREKIN BATERA DATORREN USAINA ETA LOHIA


Marijaia badator eta gure panpina maitagarriak ekartzen duen alatasunarekin batera usaina eta lohia datoz. Gehienetan, jaietan sortzen zen zikinkeria ezinbestekoa da, baina txerrikeria murriztea gure eskuetan dago: txupinazoan, adibidez.

Helburu hori betzeko asmoz, eta azken urteotan txupinazoa txerrikeria hutsa bihurtu zela kontutan hartuta, Bilboko Konpartsek txupinazora doan jende guztiari zera eskatzen die: irina, arrautzak eta bestelako txerrikeriarik ez botatzeko. Bilboko Konpartsen ustez, horrelako zikinkeriak Aste Nagusiari dagokion hasiera hondatu besterik ez du egiten.

Horrez gain, aurreko urteetako kalean txiza ez egiteko kanpainari ekin egingo diote, aurten ere, Bilboko Konpartsek Horretarako, Bilboko Konpartsak Federakundeak komun gehiago jarriko ditu jai-gunean: pasa den urtean jarritakoez bestalde, Kaskagorri, Irintzi eta Txorri Barrote txosnaren ondoan egongo dira komunak.



Aurten, txerrikeririk gabeko txupina



Este año, el txupin sin marranadas

**Bilboko
Konpartsak**



Bilboko jaiek irauten duten bederatzi egunean zehar Hau Pittu Hau-ko konpartsakideok oso gutxi egiten dugu lo. Aste Nagusian badago zer egin eta astirik ez egitaraua betetzeko, beraz nondik atera denbora ahalik eta ekitaldi gehienetan parte-hartzeko? Euskaldunon konpartsa-ren kideok jakin badakigu erantzuna: lo egiteari kentzen dizkiogu egitaraua betetzeko behar ditugun orduak.

Zapatuan, abuztuaren 20an, hasiko da urtean behin izaten dugun maratoi erraldoi hau eta egun horretan ikusiko dugu sasoiaren gauden edo jaietarako egin dugun prestakuntza eskasa den eta Euskaltel Euskadi-ri Tourrean gertatu zitzaion bezala beherakada nabarmena eukiko dugun.

Prologoa ez da makala, muntaia bukatu eta txupina. Konpartsakide askok indar gehienak erretzen dituzte eta hurrengo egunean hilda daude. Baina ezin dugu ahaztu lasterketa aurrera doala eta Domekan, egun lasaia izan arren, Go Txapelketan gure buruaren indarra frogatzeko aukera daukagu. Iaz Inñigüito izan zen egun honetako gailenatariko bat. Trantsiziorako egun honek Aste Nagusiko itzuliko etapa berezienari utziko dio lekua.

Astelehena da dudarik gabe Hau Pittu Hau-ko konpartsakideok dena ematen duten eguna eta eukiko dituzte aukerak: bazkaria, sariak, Play Backa, Hau Zorabio Hau jokua, Bertso Triki Kalejira eta amaitzeko berbena. Aurten Play Backa zabalagoa izango da. Orain arte jaun eta jabe izan dena, Kanpi, ez dago eta. Beraz,

LO EGITEK GABEKO AS



txapeldungaiak aukera galante daukate Aste Nagusi honetan.

Askoz lasaiagoak izango dira asteartea eta asteazkena indarrak berreskuratzeko. Martitzenean, Arkaitz Estiballesek emango digu bertso ikastaro txikia eta gero poteo, ikasitakoa erakusteko. Asteazkeneko plater gogorra izango dugun Euskal Tribal Erraldoian Hau

Pittu Hau-ko kideek euskal kulturaz jakite-maila erakusteko abagunea izango dute.

Lasterketaren amaiera ez da makala izango. Ostegunean Ikurriñaren omenaldia da. Udaletxetik Arriagara kalejira egingo dugu Marijaiarekin eta zanpantzarrekin. Asko edan eta gutxi lo egin ondoren gure indarrak neurtuko dituzte Ur Jokeok eta Herri Kirolek



0 ASTIRIK E NAGUSIA



Aste Nagusiaren amaieran Ur Jokoek eta Herri Kirolek neurfuko dituzte gure indarrak

ostiralean eta zapatuan, hurrenez hurren. Gogorak izango dira, dudarik gabe, batez ere Ur Jokoak, goizeko hamarretan direlako. Parte-hartzaileak ez badira itozten, pozik. Geratzen diren indarrak erretzeko eguna zapatua da eta egon badaude aukerak: bazkaria, argazki lehiaketaren amaiera eta herri kirolak. Domekan, Mariajari agur

esan behar diote zutunik daudenek.

Kontzertuak

Horrez gain, gauaz kontzertu onak entzuteko aukera izango dugu Euskal Gunean. Ene Bada, Zea Mays, D.J. Bull, Tuboskapi, Skunk, Kerobia eta Brigada Criminal, hain zuzen ere.

HAU PITTU HAÜren EGITARAUA.

Zapatua, 20:
18:30etan Txupina
20:00etan Txosnak irekitzea
Manjaiarekin

Domeka, 21:
17:30etan Go Txapelketa
22:00etan Poteo

Astelehena, 22:
14:30etan Bazkana
16:00etan Euskara Saria,
Konpartsarren Sariak eta Play
Backa.
17:00etan Hau Zorabio Hau
20:00etan Bertsoirikikalejira
23:30etan Berbena (Ene Bada)

Martitzena, 23:
18:00etan Bertso Ikastaroa eta
gero poteo.
23:30etan: Kontzertua (Zea
Mays eta DJ Bull)

Eguastena, 24:
14:00etan Bertso Bazkaria
(Bertsolariak: Fredy Paya eta
Jon Maya)
17:00etan Euskal Tribal
Erraldoia.
22:00etan Poteo
23:30etan Kontzertua
(Tuboskapi eta Skunk)

Eguena, 25:
12:00etan Dantza Ikastaroa
18:30etan Ikurñaren Omenaldia
22:00etan Poteo
23:30etan Kontzertua (Kerobia
eta Brigada Criminal)

Barikua, 26:
10:00etan Ur Jokoak
22:00etan Poteo

Zapatua, 27:
14:00etan Konpartsen arteko
bazkaria.
17:00etan Herri Kirolak
22:00 Poteo

Domeka 28:
22:00etan Agurra Manjari





Hau Pittu Hau-k ongi etorria nahi dio ALTXA PORRUEri, Bilbon daukagun konpartsa berriari. Altxa Porrue 150 kideek osatzen dute eta, herri jai eredia, euskal kultura eta euskara sustatu eta indartzea dira konpartsa berri honen helburu nagusiak. Irudian, Kanpi Altxa Porrue konpartsako kiide bati agurtuz.

BILBONBA DAQO
EUSKARAZ BIZITZERIK.....

BA DAQO MAITEZETAN
EUSKARAZ PARTE HARTZERIK

BA DAQO SANTO TOMASAK
EUSKARAZ EZAGUTZERIK

BA DAQO ASTE AGRUSIA
EUSKARAZ GOGITZERIK



www.haupittuhau.org

HAU PITTU HAU REKIN

IZENA EMAN HAU PITTU HAU-n,
hauptuhau@hauptuhau.org ra mezu bat bidaliz.

BARRAZKILO BIHOTZA

KAIXO BIHOTZAK!! Berriro heldu da uda, eta berarekin beroa, jaiak, arropa kentzea, gabetako «nahasketak»... Ziur askok ez duzuela gogoratzen zer egin zenuten konpartsero egunean, jendea nola zegoen ikusita (azkenean norekin liatu ote nintzen...?).

Beno, behintzat gauza batzuk ziur ezagutzen ditugu. Esaterako, badakigu, aurrekoan bezala, konpartsakide-txiki berriak ditugula (zorionak PITTU eta familia!). Badakigu ere laster ezkontza izango dugula (zorionak T. eta U., mesedez, saldu ezkontzaren eksklusiba guril!). Eta badakigu ere bikote berriak daudela munduan (zein polita den uda...). Zorionak!

Baina ziurrena da momentu honetan konpartsako pertsonarik «glamurosoena» FONTSO dela. Ez, oraindik ez du egin posatu bat hondartzan, baina uda honetan Mallorkako uhartean ibili da hondartza-hondartza eta diskoteka-diskoteka «jet-seb»-arekin. ANA OBREGONEkin ere egon da azken honen yate aurrean (toailak ahaztu zituela ere esan zion!). Fontso beraren hitzetan «inoiz ahaztuko ez dudan zerbait izan da. Konturatu nintzenerako Ana alboan nuen, yatera igotzeko prest». Sortu diren zurrumurruei erantzunez esan du «bakarrik ezagunak gara». Askotan entzun dugun esaldia da, zuentzako ikertzen jarraituko dugu... Bitartean ondo pasa jaietan, eta asko ligatu!!!!